

Kudeaketa txostena

—

2024



Berrikuntzaren Euskal Agentzia
Agencia Vasca de la Innovación

01

Sarrera

—
or. 03

02

Innobasque zenbakietan

—
or. 06

03

I. Helburu estrategikoa

ETE-en berrikuntza
handitzen nabarmen
laguntzea
—
or. 08

04

II. Helburu estrategikoa

Nazioarte-mailan
Euskadiko I+G+b-ren
presentzia sendotzea
eta areagotzea
—
or. 13

05

III. Helburu estrategikoa

Euskadiko gazteen
artean (batez ere,
nesken artean) zientzia
eta teknologiarako
interesa sustatzea,
STEAM hezkuntzaren
bidez
—
or. 17

06

IV. Helburu estrategikoa

Zientzia, Teknologia
eta Berrikuntzaren
Sistemari erabakiak
hobeto hartzeko
plangintza eta
kudeaketako tresna
aurreratuak ematea
—
or. 23

07

V. Helburu estrategikoa

Gure erakunde kideekin
batera beharrianak
identifikatzea eta
esperimentazio-
laborategi bat izatea
—
or. 28

08

VI. Helburu estrategikoa

Barne-taldearen
gaitasunak indartzea
eta erakundean
berrikuntza-sistematika
hobetzea
—
or. 32

09

Korporatiboa

—
or. 35

Sarrera

01

01

Sarrera

Euskadi, Europako eskualde liderra berrikuntza arloan. Horixe da Berrikuntzaren Euskal Agentziaren 2030erako ikuspegia.

Hori dela eta, berrikuntzaren garapena bultzatzen du Euskadin, erakunde kideekin eta toki- eta nazioarte-mailako beste eragile batzuekin lankidetzan. Horretarako, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragile berezi gisa, berrikuntzarako ebaluatu, sentsibilizatu, prestatu eta irtenbide berriak garatzen ditu.

2024ko ekitaldian, Innobasque-Berrikuntzaren Euskal Agentziak **2021-2024** Plan Estrategikoarekin bat etorrira garatu du bere jarduera. Plan horren helburu estrategikoak honako hauek dira:

- 01.** ETE-en berrikuntza handitzen nabarmen laguntzea.
- 02.** Nazioarte-mailan Euskadiko I+G+b-ren presentzia sendotzea eta areagotzea, Europako programen aukerak baliatuz, bereziki Horizonte Europa eta NextGenerationEU programa.
- 03.** Euskadiko gazteen artean (batez ere, nesken artean) zientzia eta teknologiarako interesa sustatzea, STEAM hezkuntzaren bidez.
- 04.** Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Sistemari erabakiak hobeto hartzeko plangintza eta kudeaketako tresna aurreratuak ematea.
- 05.** Gure erakunde kideekin batera beharrianak identifikatzea eta esperimentazio-laborategi bat izatea.
- 06.** Barne-taldearen gaitasunak indartzea eta erakundean berrikuntza-sistematika hobetzea.

Innobasqueren erreferentziazko ikuspegi eta helmuga estrategikoek bat egiten dute Euskadiren helburu globalekin. Eraginkorra izateko, eragin biderkatzailea duten mekanismoak hautatu eta aktibatu ditu Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sistema osoan (ZTBP). Berrikuntzarako mekanismo edo palanka horiek helburu estrategikoak garatzea dute helburu, eta honako hauek barne hartzen dituzte:

- Zientzia, teknologia, berrikuntza eta hezkuntzako politikak eta tresnak.
- Irtenbideak (metodologiak, zerbitzuak, etab.).
- Itunak eta sareak.
- Komunikazioa eta zabalkundea.

2021-2024 planeko helburu estrategikoak noraino bete diren jakiteko, sei inpaktu-adierazle erabiltzen dira. Hona hemen adierazle horien emaitza **2024**ko ekitaldiaren amaieran:

- 01.** Lehenengo helburuan, Plan Estrategikoaren azken urterako, hau da, **2024**rako, ezarritako jomuga bat da sektore aurreratuetakoa EAEko **2.229** ETERi aholku ematea edo berrikuntza-jardueraren bat garatzea. **2024**ko ekitaldira arte bildutako datuen arabera, **1.592** ETERi lagundu zaie (helburuaren % **71,42**).

02. Bigarren helbururako, jomuga hau ezarri zen: **2024**ko ekitaldirako I+Gko barne-jarduera duten **570** erakundetara iristea. Erakunde horiek parte hartu behar dute I+G+b-ren nazioartekotzea sustatzeko Innobasqueren jardueretan. **2024**ko ekitaldira arte bildutako datuen arabera, **505** erakundetara iritsi da, ezarritako **570** erakundeen gainean (helburuaren % **88,60**).
03. Hirugarren helburuan, **2024**rako **345** ikastetxek STEAM Hezkuntzarako jardueraren bat garatzea ezarri zen helmuga gisa. **2024** ekitaldira arte **413** ikastetxek bete dute helmuga hori (**345** ikastetxeen helburua gainditu da).
04. Innobasqueren Zuzendaritza Batzordean parte hartzen duten Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sistemako erakundeetako ordezkariak oso balorazio positiboa egin dute (**10**etik **8,64**ko nota lortu dute) Berrikuntzaren Euskal Garapenak ZTBPrek beraren prospektiban, ebaluazioan eta gobernantzaren babesean garatutako eginkizunei buruz. Helburua zen **2024**rako **8,5**eko nota metatua izatea.
05. **2024**ko abenduaren **31**n, erakunde kideen % **95,47** bisitatu da eta/edo inplikatu da Innobasqueren jardueraren batean; **2024**ko ekitaldirako, helburua % **100**eko ehuneko metatua (**2021-2024**) lortzea zen.
06. **2024**ko ekitaldian, diru-sarreraren % **7,6** Innobasqueren berrikuntza kudeatzeko jardueretan inbertitu da, eta langileen orduen % **4,98** prestakuntza-jardueretarako erabili da. Helburua zen **2024**aren amaieran diru sarreraren batez besteko ehuneko metatuak % **5** izatea, eta langileen orduen % **5** prestakuntza jardueretara bideratzea.

Innobasque zenbakietan


02

02

Innobasque zenbakietan

Erakunde kideak

2024/12/31n, Innobasqueren elkarte-oinarria **908** kidek osatzen dute, hau da, I+Gko inbertsioaren % **63**ak.



Jardueraren inpaktua 2024ko abenduaren 31n

- Sektore aurreratuetako **982** ETERi aholkularitza eman zaie/berrikuntza-jarduerak garatzen ari dira.
- 247** ETEk parte hartzen dute beren I+G+b nazioartekotzeko jardueretan.
- 315** ikastetxek STEAM jarduerak egin dituzte.
- Innobasqueren Zuzendaritza Batzordean parte hartzen duten Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sistemako erakundeen ordezkariak **8**tik gorako balorazioa egin dute.
- Erakunde kideen % **55** bisitatu edo inplikatu da.
- Aurrekontuaren % **7,8** Innobasqueren berrikuntza kudeatzeko.
- Taldearen orduen % **5** prestakuntzan inbertitu da.
- 46.909** jarraitzaile sare sozialetan.
- 1.612** inpaktu komunikabideetan.
- 132.792** erabiltzaileen **167.897** saio web-orri korporatiboan.

I. Helburu estrategikoa

ETE-en berrikuntza
handitzen nabarmen
laguntzea

03

03

I. Helburu estrategikoa

ETE-en berrikuntza handitzen nabarmen laguntzea

Euskadiko **4.458** enpresa txiki eta ertain Berrikuntzaren Euskal Agentziaren helburuko ETEtzat jotzen dira; **10-249** pertsonako plantillakoak, berrikuntzari balio erantsi eta ekarpen handiagoa egiten dioten sektore aurreratuetaoak. Hau da, industria-jarduerak, industriari lotutako zerbitzuak, informazioaren eta komunikazioen gizartea, logistika eta handizkako merkataritza.

2024an, jarduketa hauek egin dira:

- **2024**ko abenduaren **31**n, guztira **1.592** ETEk parte hartu dute Innobasquek **2021-2024** aldirako Plan Estrategikoan sustatutako berrikuntzarako jardueretan. Horietatik, **982k 2024**. urtean Innobasquek sustatutako programa eta irtenbideetan parte hartu dute.
- Enpresa txiki eta ertainek guztira **2.614** alditan jardun dute Berrikuntzaren Euskal Agentziarekin (horietatik **1.421 2024**ko ekitaldian errepikatu zuten **978** parte-hartzaileenak dira) **2021-2024** aldirako Plan Estrategikoaren esparruan; hortaz, aldi horretan enpresen artean % **62,71**eko errepikapena/fidelizazioa egon da (jarduera batean baino gehiagotan parte hartzen dute, edo jarduera berean behin baino gehiagotan parte hartzen dute).
- Aktibatu diren **10** enpresetatik **6** industriaren edo energiaren sektorekoak dira.
- ETE-ek parte hartutako berrikuntza-jardueren % **39,38**k lotura du programetan edo tresnetan parte hartzearekin, eta % **60,62**k lotura du Innobasquek sustatutako irtenbide/tresnekin (gaikuntza, profila, mapa...).

2024ko ekitaldian, besteak beste, honako jarduera nabarmen hauek egin dira:

Hazinnova Programa

Spri taldearen, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren eta Innobasque-Berrikuntzaren Euskal Agentziaren programa, ETE-ei berrikuntza proiektu txikiak modu praktikoan, arin eta erraz gauzatzen laguntzeko.

7.200 ETEren datu-basea kudeatu da (**1**. helburuan sartzen ez diren **5-9** langileko enpresak barne).

525 proiektu lortu dira (azkenean **499** onetsi dira, loteetan gehiegikeriak egoteagatik) ezarritako **500** proiektuko helburuaren gainean.

- **364** ETEk parte hartu dute, eta horietatik:
 - **177** ETE aurretik ez dutenek jarduera batean ere parte hartu.
 - % **72k 10** langile baino gehiago ditu.
 - % **70** manufaktura-industriaren sektorekoa da.
- Aurrekontuaren % **95** bete da (eskainitako **8** lotetatik **5** agortu dira).

- Hazinnovako **50** eragileen sarea sortu, dinamizatu eta gaitu da berrikuntza sustatzeko, eta talde eragile batek Komunikazio eta Marketin Plana jarri du abian (jarduera digitalak, offline jarduerak eta deiak eta jardunaldiak).

BIND 4.0 SME Connection

Spiren BIND SME programaren esparruan, Innobasquek erakunde gisa parte hartu du ETEak programan parte hartzeko erakartzen, eta, gainera, bi gaikuntza-saio egin ditu hautatutako enpresekin, Bind 4.0 SME Connection programaren esparruan hautatutako start-uparekin batera garatuko zen proiektu eta produktu jakinak zehazteko. Jarduera horretarako, Innobasquek euskarriak definitu, diseinatu eta garatu (lan-koadernoak) ditu, parte hartzen duten ETE-ek beren kontzeptuaren proba (proiektua) definitu dezaten, ondoren esleitutako start-uparekin lanean hasi ahal izateko.

Lan Mentoring

Doako laguntza-zerbitzu espezializatua da, langileen belaunaldien arteko erreleboari ekin nahi dieten ETE-ei zuzendua, adin gehiagoko langileek duten ezagutzak enpresan jarrai dezan eta langile horiek alde egitean gal ez dadin. Euskadiko biztanleria zahartuz doanez, gutxi barru belaunaldien arteko ordezkapena egon beharko da. Enpresek, batez ere ETE-ek, modu egokiagoan kudeatu beharra dute taldeen adina, lehiakortasuna ez galtzeko. Lanbidek Innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentziarekin batera sustatutako ekimen pilotu horren bidez, ETE-ei beren langileen bizi-zikloi aurrea hartzen, antolatzen eta kudeatzen laguntzen dien prozesua errazten da.

- Programa pilotuaren diseinuan hartutako **60** enpresek dagoeneko egikaritzea amaitu dute **2024**ko abenduaren **31**n, eta, **2024**ko azarotik, Lan Mentoring Euskadiko ETE guztientzako martxan dagoen Lanbideren zerbitzu bat da, Euskal Enplegu Zerbitzuaren berezko zerbitzu gisa.

Ikastaroen eskaintza berria duten ETE-ei Berrikuntzako prestakuntza ematea

Berrikuntzako Prestakuntzaren katalogoa birdiseinatu da, aditze-prozesuan identifikatutako ETE-en behar eta erronkekin konektatuz: zaintza, finantzaketa, talentua eta negozio-eredua. Prestakuntza-eskaintza berri hori diseinu-ziklo laburren, eskariaren trazabilitatearen, eta erakundeekin eta erreferentziako profesionalekin izandako elkarlanaren ondorio da.

- **237** enpresatako **400** pertsonen parte hartu dute.
- ETE txikiena (**11-25** langile) prestakuntza-ikastaro gehienetara joaten ari dena da (% **69**), eta industria-enpresak gailentzen dira (% **61**).
- Prestakuntza jasotzen ari diren pertsonen lanbide-profila zuzendarienak edo jarduketak ezartzeko eremu funtzionaletan ardura duten pertsonenak dira (kudeatzailerak edo finantza-zuzendaritzak, arloko arduraduna, salmentako zuzendaria, etab.).
- Bizkaitik kanpo ikastaroak emanez ETE-ei prestakuntza gerturatzeko apustuak arrakasta izan du; izan ere, parte hartu duten ETE-en % **33** Gipuzkoakoa da, % **43** Bizkaikoa eta % **23** Arabakoa.

- Prestakuntza jaso duten pertsonen erdiak baino gehiagok (% **52,86**) ikastaroa egiteko derrigortasuna ezarriko lukete (9tik gertuko puntuazioa eman diote).

Berrikuntza-kasu praktikoak: 2024ko Global Innovation Day ekitaldiari lotutako 5. deialdia

Ekainean, aurreko ekitaldietan bezala, berrikuntza-kasu praktikoek 5. deialdia plazaratu zen (ekainaren 6an plazaratu-uztailaren 15ean amaitu), Adimen Artifizialeko eta Adimen Artifizial Sortzaileko kasu praktikoak identifikatzeko. Arlo horretako berrikuntza-kasu praktikoak identifikatzeko, eta, ekitaldi horretarako, elkarlana egin da BAIC eta BCAMEkin.

- Deialdian **28** berrikuntza-proiektu aurkeztu dira, hainbat aplikazio-sektoretakoak.
- **6** kasu azaroaren **4**an egin zen Global Innovation Day ekitaldian aurkeztu ziren.

Aurkeztutako kasu guztiak aztertu, kalifikatu eta Euskal Berrikuntzaren Maparen Kasu Praktikoek Bankura sartu dira.

• Besteak beste, honako eragile estrategiko hauekin itunak sinatu edo berritzea

- Eusko Jaurlaritzako **Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen saila**, zeinarekin hitzarmena sinatu den berrikuntza sustatzeko.
- **Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekonomia Sustapena saila eta Beaz**, “Bizkaia Orekan Sakonduz” ekimen estrategikoaren esparruan (martxan 2020ko irailetik).
- **Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ekonomia Sustapena, Turismoa eta Landa Ingurunea saila eta Garapen**–Garapen Agentzien Euskal Elkarte (martxan 2022ko irailetik).
- **Arabako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapena saila**, zeinarekin lankidetzak hitzarmena sinatu den, Arabako kuadrillen bidez lurraldean berrikuntza sustatzeko xedez.
- **Vitoria-Gasteizko Udala** (martxan 2022ko otsailetik), udalerriko ETE-ekin jarduteko.
- **Euskalit**, Euskadin ETE berritzaileen hazkuntzari lehentasuna emanez, Spirekin batera berrikuntzari buruzko prestakuntza eta kudeaketaren bidez.

Lurralde- eta sektore-eragileekin ituna finkatu da “Berritzen Laguntzeko Eragileen Sarea”ren esparruan, eta 90 eragile inguru daude sartuta.

2024an egindako beste jarduera batzuk

- Berritzen laguntzeko zerbitzuen jardunaldiak ETE-entzako:

Eguna	Tokia	Udalerrria	Eragile liderra	Elkartutako eragileak
2024/04/24	Web-mintegia		BASQUE FOOD CLUSTER	KONFEKOOP / MENDINET
2024/05/03	Web-mintegia		HABIC	
2024/05/14	Jundizko Enpresa Zentroa	Vitoria-Gasteiz	VITORIA-GASTEIZKO UDALA / INNOBASQUE	AFA / SPRI-EJ
2024/05/23	Web-mintegia		AFM	
2024/06/14	RPK	Vitoria-Gasteiz	VITORIA-GASTEIZKO UDALA / INNOBASQUE	AFA / SPRI-EJ
2024/07/04	EIC - Energy Intelligence Center	Abanto	MEATZALDEKO BEHARGINTZA	ENKARTUR / SANTURTZILAN / INGURALDE / UNIPORT / BFA / BEAZ / SPRI-EJ
2024/09/11	Web-mintegia		BASQUE HEALTH CLUSTER	
2024/09/19	BiscayTIK fundazioa	Getxo	GETXOLAN	BFA / BEAZ / SPRI-EJ
2024/09/20	GOIMEK	Itziar-Deba	DEBEGESA	ITZIAR-DEBA ENPRESA PARKEA / SPRI-EJ
2024/09/25	Web-mintegia		CECOBI	
2024/09/26	Jundizko Enpresa Zentroa	Vitoria-Gasteiz	VITORIA-GASTEIZKO UDALA / INNOBASQUE	AFA / SPRI-EJ
2024/10/17	Web-mintegia		ACICAE	
2024/11/14	Arrantzaleen Kofradia	Santurtzi	SANTURTZILAN	UNIPORT / BFA / BEAZ / SPRI-EJ
2024/11/22	Azterlan	Durango	DEK / DEE-AED	BFA / BEAZ / SPRI-EJ

- Vodafone Deia Innovation Sariak ekitaldiaren sari-banaketan parte hartzea.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailarekin** batera lan egitea Euskadi Sortzailea ZTBP 2030ean aukerarako lurralde gisa zabaltzen, Bilbon Creativity World Forum-a diseinatzen eta egikaritzen lagunduz; horretan, Innobasque Berrikuntzako lantalde tematikoaren buru izan zen Tecnaliarekin batera.

II. Helburu estrategikoa

Nazioarte-mailan
Euskadiko I+G+b-ren
presentzia areagotzea

04

04

II. Helburu estrategikoa

Nazioarte-mailan Euskadiko I+G+b-ren presentzia areagotzea

2024an, 246 euskal erakundek euskal I+G+b-ak nazioartean duen presentzia areagotzearekin lotutako jardueretan hartu dute parte.

2021-2024 aldirako Plan Estrategikoan, guztira **505** erakundek lan egin duten Berrikuntzaren Euskal Agentziarekin, guztira **704** interakzio izanik aldi horretan; hortaz, gutxi gora behera % **16,5**eko errepikapena/fidelizazioa egon da (jarduera bat baino gehiagotan parte hartzea edo jarduera berean behin baino gehiagotan parte hartzea).

Innobasque BEAZ, BTI eta hiru merkataritza-ganbarekin batera SPRIk lideratzen duen EEN Basque partzuergoaren kidea da, eta Europako Esparruan I+G+b Finantzatzeko Europako Esparruarekin bat egin nahi duten euskal erakundeei aholkularitza emateko kontratua du, **2028ra** arte berritu dena.

2024ko ekitaldian, besteak beste, nabarmendu beharreko jarduera hauek egin dira:

Jaurlaritzari laguntza ematea 2030erako nazioartekotzeko estrategia monitorizatzen eta ebaluatzen (ESINT 2030)

- **2024**rako estrategiarako ekintza-plana eguneratzea. Aginte-koadroaren eta abian jarri diren ekintzen jarraipena egitea. Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren Teknologia eta Berrikuntza Zuzendaritzak baliozkotua.
- **2021-2023** aldian HORIZON EUROPEn Euskadik izandako parte-hartzearen txostena eta RIS3ren lehentasunen (industria adimenduna, osasun pertsonalizatua eta elikadura osasungarria) **2021-2022** aldirako txostenak egitea.
- **2021-2023** aldiko deialdietako Europako beste I+G+b programa batzuen emaitzen (LIFE, INNOVFUND, CEF, EDF, DIGITAL EUROPE, EU4HEALTH, EMFAF) eta trantsizioen (berdea, digitala, demografikoa eta trantsizio bikoitza) txostenak monitorizatzea eta egitea.

SPRIrekin batera parte hartzea Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak sortutako lantaldean, FP10 programa-esparruarekiko ("Position Paper FP10") Euskadik izango duen jarrerari buruzko dokumentua egiteko.

Europako sare eta proiektuetan parte hartzea

- Innobasque BEAZ, BTI eta hiru merkataritza-ganbarekin batera SPRIk lideratzen duen EEN Basque partzuergoaren kidea da, eta Europako Esparruan I+G+b Finantzatzeko Europako Esparruarekin bat egin nahi duten euskal erakundeei aholkularitza emateko kontratua du, **2025eko** ekainera arte.
- MANUNET 3 programa ixtea.

- M-ERA.NET kudeatzea: **2023**ko deialdia ixtea eta **2024**ko deialdian parte hartzea Eusko Jaurlaritzaren ordezkari gisa. **2025-2027** aldiko deialdietarako etorkizuneko CSA “M-ERA.NET 4” proposamena prestatzea.
- Material aurreratuen etorkizuneko lankidetzaren jarraipena egitea.
- Raw Material-en lankidetza berria definitzeko (egungo ERA-MIN 3) bileretan parte hartzea, Euskadik horretan parte hartzeko dituen aukerak aztertzeko.
- Elikagaiei buruzko Europako Future FoodS lankidetza berrian parte hartzeko aholkularitza.

I+G+b-a nazioartekotzeko berrikuntzari buruzko prestakuntza ematea

- Innobasquek, EEN partzuergoaren esparruan, Euskal erakundeak arlo horretan gaitzeko eta Europako Esparruko finantzaketa lortzeko aholkularitza/laguntza emateko enkargua du.
- Horizon Europarekin lotutako gaietako prestakuntzak oso balorazio positiboa du (**9,2/10**) barne I+G+b egiten duten erakundeen artean.

Euskadik Europako programetan duen posizionamendua hobetzeko sustapena

Innobasquek lantalde horiek kudeatzen eta dinamizatzen ditu, lan-plana definitzea eta horretan aurrera egitea sustatuz, eta taldeko kide bat gehiago moduan jarduketak egikaritzuz eta jarduketa berriak proposatuz.

- Industria adimenduna:
 - Euskadik FP10 (“Position Paper FP10”) esparru-programarekiko izango duen jarrerari buruzko dokumentua (Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak eginga SPRI eta INNOBASQUEren laguntzarekin) alderatzea.
 - Laguntza ematea Euskadik material aurreratuen I4MEU lankidetza berriko gobernu-organoetan izango duen jarreraren inguruan, eragileen arteko hautagaitza koordinatua egiten lagunduz.
 - Euskadin “datuen espazioek” izandako inpaktuari eta industrian (Innobasqueren enpresa kide eragileak eta AAFM eta ACICAE klusterrak) zabaltzeari buruzko hausnarketa-prozesua diseinatzea.
 - EEN sarearekin batera Europako proposamenetarako tokiko kideak bilatzeko ekimena zehaztea.
 - Makina Erreminten azokako paneletan nazioarteko **19** proiektuak aurkeztea eta GT-INT Industria Adimenduneko kideek proiektu horietako **14** aurkeztea.
- Osasun pertsonalizatua:
 - Osasunean Berritzeko Euskal Sistema batera aurkezteko dokumentua egitea, nazioartean erabiltzeko.
- Elikadura osasungarria. Elikarekin lan egitea Horizon Europeko Sustainable Food Systems for People, Planet & Climate lankidetzan parte hartzeko.
- Ekoberrikuntza. Horizon-CL6-2024 CircBio-02-3-two stage deialdian aurkezteko proposamena eratzea, euskal ETE newcomer berriak sartzeko xedez.

Lotutako beste jarduera batzuk

- **2024**ko ekitaldian **7** informazio-jardunaldi antolatu dira (**5** aurrez aurre eta **2** web mintegi) I+G+b-n nazioarteko berrikuntzan dauden finantzaketa-aukeren inguruan (infoday-ak), **2024**ko programak eta deialdiak euskal ETE-engana hurbiltzeko. Jardunaldi horiek EEN Basquerekin (SPRI eta BEAZ) batera antolatu dira, baita kanpo eragileen laguntzarekin, hala nola GTIZekin eta EISMEArekin.
 - **24/01/16** Nazioarteko elkarlan teknologikoa: **2024**rako aukerak.
 - **06/02/24** Web-mintegia: “Europako finantzaketa-aukerak euskal itsas industriarentzat”.
 - **24/02/27** I+G+b arloan nazioarteko lankidetza finantzatzeko aukerak: OSASUNA.
 - **24/03/11** I+G+b arloan nazioarteko lankidetza finantzatzeko aukerak: ENERGIA ETA MUGIKORTASUNA.
 - **24/04/15** Web-mintegia – Berrikuntzan eskualde arteko berrikuntza finantzatzeko aukerak: I3 tresna.
 - **24/05/09** ECren azeleratzailea.
 - **24/06/11** I+G+b-a nazioartekotzeko hirugarren jardunaldia: ETE-entzako aukerak urraska-finantzaketaren bidez.
- **2024**an eginiko ekitaldietan **146** erakundetako **232** pertsonak hartu dute parte.

III. Helburu estrategikoa

Euskadiko gazteen
arteak zientzia
eta teknologiarako
interesa sustatzea

05

05

III. Helburu estrategikoa

Euskadiko gazteen artean zientzia eta teknologiarako interesa sustatzea

2024ko ekitaldian eginiko jardueren ondorioz, Euskadiko ikastetxeen % **60**k STEAM Hezkuntzako jardueraren bat egin du **2021-2024** aldian, **2024**ko amaierarako ezarri zen helburua gaindituz (% 60).

Zehazki, **2024**an, guztira **315** ikastetxe eta **27.500** ikasle mobilizatu dira.

Jarduera sei ekimenen inguruan egituratu da, horiek guztiak Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren STEAM Hezkuntza Estrategiaren esparruan, eta STEM arloko **110** erakundek eta **270** profesionalak parte hartu dute jarduketetan.

2024ko ekitaldian eginiko jarduera nagusiak:

STEAM Sare

Egindako jarduera:

- Erakunde eskaintzaileekin katalogoko edukia sortzea: **54** jarduera, programa eta tailer.
- Jarduera berriak diseinatzea, curriculumean integratzeko aholkularitza-zerbitzua emanez.
- Ikastetxeak erakartzea, haiei aholkatzea eta jarraipena egitea, izena eman dezaten.
- Ikastetxeek jardueretan eginiko izen-emateak kudeatzea CRMren bidez.
- Aurretiko-izen-emateak aztertzea, erakunde eskaintzaileekin alderatzea eta behin betiko izen-emateak berrestea: **207** ikastetxek izena eman dute, **22.600** ikaslerekin.
- [Katalogoaren](#) bidez eskainitako jarduerak, programak eta tailerrak abian jartzea, horien jarraipena egitea eta baloratzea.
- Emaitzak eta jardunbide egokiak partekatzeko sarearen lehenengo topaketa teknikoa antolatzea.
- STEAM Euskadi txosteneko datuak eguneratzea.
- Katalogoaren bidez eskaintzen diren programetan STEM profesionalen parte-hartze eskaintza bateratzea, enpresen elkarlana errazte aldera.
- steam.eus web-orria osorik eguneratzea, ikastetxeei eta erakunde laguntzaileei emandako zerbitzua hobetzeko.
- Erakunde eta ikastetxe berriek bat egiteko erakartzea eta bat-egiteak kudeatzea.
- BECekin STEAM espazio bat kudeatzea Gabonetako UGPn.

Lortutako emaitzak:

- **54** jarduera.
- **207** ikastetxek eman dute izena.
- **22.600** ikaslek parte hartu dute.
- STEM arloko **270** profesional mobilizatu dira.
- **110** enpresa eta eragile zientifiko-teknologiko mobilizatu dira.
- Jardueren batez besteko balorazioa: **8,5**.

STEAM arloko orientaziorako jardunaldiak

Egindako jarduera:

- Unibertsitateekin eta lanbide-heziketako elkarteekin STEAM arloko orientaziorako jardunaldien eredu berria diseinatu eta abiarazi da.
- Erakunde laguntzaileak koordinatzea.
- Jardunaldiak homologoak izateko eskuliburuak prestatzea.
- STEAM arloko profesionalak erakartzea eta izena emateko plataforma berria garatzea.
- Ikastetxeei eta STEAM arloko profesional parte-hartzaileei prestakuntza ematea.
- Ikastetxeen eta STEM arloko profesionalen parte-hartzea kudeatzea.
- Urrian 9 jardunaldi egin dira.
- Irakasleen, ikasleen eta STEAM arloko profesionalen esperientzia baloratzea.
- Lanbide-orientazioari buruzko atal berria sortu da steam.eus web-orrian.

Lortutako emaitzak:

- **9** jardunaldi.
- **6** erakunde antolatzaile kide.
- **29** ikastetxe parte-hartzaile.
- **935** ikasle.
- STEAM arloko **98** profesional.
- **51** erakunde laguntzaile.
- **8,6**ko nota irakasleen artean.

FIRST LEGO League Euskadi

Egindako jarduera:

- Erakunde antolatzaileak koordinatzea txapelketa egiteko beharrezko jarduera guztietan.
- Boluntarioak prestatzea.
- Harreman instituzionalak kudeatzea.
- Prestakuntza-programa zein txapelketa ezagutzera emateko komunikazio-plana garatzea.

- Ikastetxe berriak biltzea txapelketara egindako bisiten bidez.
- Ikastetxeek Z izena emateko prozesua kudeatzea STEAM Sarearen bidez.
- Irakasleentzako prestakuntza-saioak prestatzea.
- Gaien erronkaren analisia egitea eta Euskadiko errealitatera egokitzea.
- Materialak prestatzea parte hartuko duten ekipoentzako.
- Gaien erronkari buruzko prestakuntza-tailerrak prestatzea.
- FLL Euskadiko antolatzaileekin bilera egitea denboraldiari hasiera emateko.
- Taldeetako entrenatzaileentzako prestakuntza, robotaren jolaserako eta berrikuntza prozesurako.
- Submerged gaien erronkari buruzko prestakuntza-tailerrak martxan jartzea: 6 bisita.
- Parte hartuko duten ikastetxeetako izen-emateak kudeatzea: **60** eta **175** ekipo
- Boluntarioak biltzeko eta izen-emateak kudeatzeko kanpaina.
- FLL Espainiako kideei prestakuntza ematea.

Lortutako emaitzak:

- **60** ikastetxek parte hartuko dute. Inoiz lortutako zifrarik altuena.
- **175** taldek parte hartuko dute.
- **4** egoitza.
- Erronkarekin zerikusia duten erakundeei **6** bisita egiteko prestakuntza-programa.

STEAM Euskadi Sariak

Egindako jarduera:

- STEAM Euskadi Sariak ekitaldiaren **4.** edizioa kudeatzea:
 - Hautagaitzak jasotzea eta jarraipena egitea.
 - Ebaluazio-taldea osatzea eta koordinatzea.
 - Jasotako hautagaitzak ebaluatzea eta Batzorde Teknikoarentzako ebaluazio txostena egitea.
 - Epaimahai aditua osatzea eta koordinatzea eta finalisten defentsak eta sarien epaitzak egitea.
 - Sarien **4.** edizioaren emaitzak jakinaraztea.
 - **2024**ko maiatzaren **18**an sariak ematea.

Lortutako emaitzak:

- **126** hautagaitza jaso dira.
- % **53** ikastetxeek aurkeztu dituzte.
- STEAM ZIGILUDUN **80** ekimen.
- Saritutako **6** ekimen.

STEAM Euskadi Topaketak

Egindako jarduera:

- Topaketen **4.** edizioaren lau saioak egitea.
- Bi saio ikastetxeetako proiektuekin egin dira, bat unibertsitate eta lanbide-heziketako zentroekin eta bestea erakunde sozioekonomikoekin.
- STEAM Euskadi Sariak ekitaldiaren ekimen irabazleekin egin beharreko saioak prestatzea.
- Saioak sare sozialetan hedatzea.
- Saioetako izen-emateak kudeatzea.
- **2024**rako balorazio- eta proposamen-txostena egitea.

Lortutako emaitzak:

- **350** pertsonak izena eman dute.
- **121** erakunde paregabe ziklo osoan.
- % **77** ikastetxeak.
- Balorazioa: **8,5**.

Lankidetzak

Inspira STEAM:

- Edizioa ixteko ekitaldietan parte hartzea.
- Inspira STEAM programa STEAM Sareko katalogoan sartzea eta izen-emateak kudeatzea.
- Edizioa ixten eta emaitzak hedatzen laguntzea.
- Programarako mentoreak gaitzen laguntzea.
- Parte hartuko duten ikastetxeak gaitzen laguntzea..

Forensic Science:

- Forensic Scienceko **2023-2024** edizioa baloratzea.
- **2024-2025** edizioa sustatzeko eta garatzeko koordinazio-taldean parte hartzea:
 - Edizio berria planifikatzea.
 - Krimena antzezteko prestakuntza abiaraztea.
- Itsas Museum-en parte-hartzea kudeatzea, proiektuan parte hartuko duen erakunde kolaboratzaile gisa.

- Informazio-saioa parte hartuko duten ikastetxeekin.
- Proiektuaren jardueren eskaintza eta izena emateko deialdia prestatzea.
- Krimenaren antzezpena diseinatzea.
- Krimena Itsas Museum-en antzeztea.
- Forensic Science kurrikulumean nola integratzen den erakusteko prestakuntza-saioa.
- Ikastetxeek instalazioak eta laborategiak bisitatzea.

EU STEM Coalition:

- Sareko bileretara bertaratzea: Biltzarra eta “Towards a European STE(A)M Platform” Erasmus+ proiektua.
- Europako bi proiektu berritan Euskadiren parte-hartzea baloratzea.
- Sareko Biltzarrerara bertaratzea.
- Proiektua justifikatzeko amaierako txostena prestatzea.

GALAXIA_Etorkizuna Argitzen programa:

- “P4 – STEM bokazioak” lantaldea koordinatzea.
- **3** ikastetxeen parte-hartzea kudeatzea, kontrastatzeko.
- STEM profesionalentzako plataforma bat sortu da STEAM Sare esparruan.
- Proiektuaren web-orria egitea steam.eus-en atal berrian.
- **25** ikastetxeek pilotuan parte hartzea kudeatzea, STEAM Sare katalogoaren bidez izena eman ondoren.
- Proiektuaren bileretan parte hartzea eta Eusko Jaurlaritzarekin proiektuaren aurrerapenak koordinatzea eta alderatzea.
- STEM profesionalak biltzen hastea.
- Parte hartuko duten ikastetxeek erabiliko dituzten materialak prestatzea (gelako jarduerak, STEM lanbideen katalogoa, autodiagnostikorako tresna, STEM profesionalen plataforma).
- Lehenengo prestakuntza-saioa egitea ikastetxeetako orientatzaileekin.
- Programako koordinatzailearen bilera, egin beharreko produktu guztiak prestatzeko.
- BFArekin koordinatzea, programaren **2025-2027** aldirako proposamena egiteko.

IV. Helburu estrategikoa

Zientzia, Teknologia
eta Berrikuntzaren
Sistemari erabakiak
hobeto hartzeko
plangintza eta
kudeaketako tresna
aurreratuak ematea

06

06

IV. Helburu estrategikoa

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Sistemari erabakiak hobeto hartzeko plangintza eta kudeaketako tresna aurreratuak ematea

Innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentziaren laugarren helburu espezifikoan kudeaketa operatiboko lau adierazle daude: Euskadi **2030** Zientzia, teknologia eta berrikuntzako Planaren (ZTBP) idazkaritza tekniko gisa egindako lanaren balorazioa; ikuskaritza- eta prospektiba-lanen balorazioa; eta, azkenik, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistemaren (ZTBES) monitorizazio- eta ebaluazio-funtzioen balorazioa, dibulgazioari eta komunikazioari lotutakoa barne. **2024** ekitaldia amaitzean, agentziak **8,64** puntu lortu zituen hamarretik, eta **2024**rako zehaztutako helburua bete zuen.

Innobasquek lagundu du **2024**an zehar Eusko Jaurlaritzaren eta foru-aldundien zientzia, teknologia eta berrikuntzako politikari lotutako **14** tresna diseinatzen edo kudeatzen; hortaz, dagozkion monitorizazio- eta ebaluazio-txostenak egin ditu, hala eskatzen duten erakunde kideei aurkezteko.

2024 ekitaldian egindako jarduketa nagusiak:

I+G arloaren eta berrikuntzaren egoerari buruzko txostena hiru lurralde historikoetan

- Berrikuntzaren biurteko txostenaren laugarren edizioa; bertan, Euskadiko, estatuko eta Europako iturrietatik hartutako analisi zabala zehazten da.
- Bizkaiko I+G arloaren eta berrikuntzaren egoeraren azterketa aurkeztea Ekonomia Sustatzeko diputatuari, Ekintzailetza eta Enpresen Lehiakortasuna Bultzatzeko zuzendariari eta Beaz enpresako zuzendariari (urtarrilak **22**).
- Gipuzkoako I+G arloaren eta berrikuntzaren egoeraren azterketa aurkeztea diputatu nagusiari, Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako diputatuari eta Berrikuntza eta Nazioartekotze zuzendariari (otsailak **1**).

Berrikuntzako Joeren 2024 txostena eta hori hedatzeko plana

- Joeren **2024**ko txostena merkaturatzea (**1.286** bisita); bertan, **2023**. urtean zehar identifikatutako joera nagusiak eguneratu dira. Bereziki azpimarratu da testuinguruaren analisia eta AAre eta AASren garrantzia eta nonahikotasuna; halaber, kapitulu berezi bat egin da “Berrikuntza Autonomia”ri buruz.
- Aurkezpenak erakunde kideetan: Elikadura Clusterra, Basque Health Cluster, BC Materials, Hegan, Interbiak eta UPV/EHU (Sarriko). Guztira **150** pertsona baino gehiago.
- Txostena Innobasqueren prestakuntza- eta sozializazio-jarduketa desberdinekin lotzea: kideentzako prestakuntza, Global Innovation Day eta Biltzarra.
- Joerekin lotutako **33** artikuluko prestatzea, eta % **33**tik gorako zabalkundea egon da hilabeteko buletinetan (**3.699** bisita joeren web-orrian).

- Zaintzari, adimenari eta prospektibari lotutako **2** sentsibilizazio-saio egitea.
- Esperientziak partekatzeko bileretan parte hartzea: Estonian Research Council eta Espainiako Gobernuaren Prospektiba Bulegoa.
- Etorkizunerako egoerak prestatzea Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistema 2030erako.

Berrikuntza irekiari eta berrikuntza-ekosistemei eta horien hedatze-planari buruzko txostena

- Berrikuntza irekiari eta berrikuntza-ekosistemei buruzko txostena argitaratzea (**222** bisita); gai horiei eusteko erreferentziazko gida teoriko-praktikoa. Berrikuntza irekia eta berrikuntza-ekosistemak dira azken urteotan detektatutako berrikuntza-joera nagusietako batzuk.
- Txostena hedatzeko planaren hasierako diseinua. Partaidetza-saioak egin dira **3** lurraldeetan, eta helburua da txostenaren balioa azpimarratzea eta Euskadiko erakundeetako kasu praktikoak ezagutzera ematea.

Etorkizuneko terminoen glosarioa

- Etorkizuneko terminoen glosarioa argitaratzea, zaintza- eta prospektiba-kontzeptu nagusien definizioa adosteko. Glosarioa egiteko Innobasquek koordinatzen duen Prospektiba-sareko erakundeek parte hartu dute: Beaz-Bizkaia, Innguma, Intool, Paralogos AI, Prospektiker, Tecnalia eta ZINK (glosarioa 20 aldiz deskargatu da).

Euskadiko berrikuntza-gaitasunaren eta bere ekonomia-ingurunearen analisia

- Azterlanean aztertzen dira Euskadiko ekonomia- eta berrikuntza-gaitasuna, bien arteko harremana eta Estatuaren hiriburutza ez izatearen eragina. Azterlana Deustuko Unibertsitatearen Ekonomia arloarekin batera egin da. Horrekin batera egindako azken txostenean azken hamarkadan Euskadik Estatuan pisu ekonomikoa galtzearen arrazoiak azaltzen dira, Estatu mailan berrikuntza-sailkapenen buru den arren.

EAEn 2024an I+Gn egindako gastuaren zenbatespen aurreratuaren txostena

- I+G arloan gehien inbertitzen duten enpresekin eta Eusko Jaurlaritzarekin bilerak, Euskadiko I+G+b arloaren **2024**ko egoera balioztatzeko (**16** enpresatik, BRTatik, Lehendakaritzatik eta Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailetik guztira **20** pertsona bertaratu ziren).

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea (ZTBES) monitorizatzea eta ebaluatzea

- ZTen eta IKZen datuak homologatzea, Emaitek+ **2024**rako.
- Zentro Teknologikoen eta IKZen banakako txostenak.

ZTBP 2030ren jarraipen-txostenak

- ZTBP 2030ren bitarteko ebaluazioa. Barne hartzen ditu bitarteko emaitzak, helburu eta egoera ekonomikoak, gehitu beharreko adierazle potentzialak identifikatzea eta bere gobernantzaren ebaluazio kualitatiboan parte-hartzea.
- ZTBP 2030ren jarraipen-txostena.
- Policy mix delakoaren txostena.

Europar deialdi baterako proposamena

- Helburua: berrikuntzaren euskal ekosistemaren etorkizun-egoerak definitzea eta balizko jarduketak identifikatzea.
- Osagaiak:
 - Egoerak eraikitzeko kolaboratzaile-sarea.
 - Innobasquek eta Prospektikerrek antolatutako eta gidatutako workshop-ak.
 - FutuResilience Partzuergoaren babesa.

Global Innovation Day 2024

Global Innovation Day ekitaldia Euskadin abangoardiako berrikuntza hedatzeko erreferente gisa finkatu da, eta horren **13.** edizioak fokua adimen artifizialean jarri du, bereziki bertsio sortzailean; izan ere, "gizateriaren bidea zeharo alda dezakeen zeharkako teknologia da", Innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentziako presidente Manuel Salaverriaren hitzetan. Iraultza berri horrek dagoeneko Euskadin inpaktu handiko garapenak sustatu ditu tamaina eta sektore guztietako erakundeetan, eta hala erakutsi zen Bilboko Azkuna Zentroan egindako ekitaldian, 6 arrakasta-kasu aurkeztu baitziren. Ekitaldiaren edukiera bete egin zen. Innobasqueko zuzendari nagusi Leire Bilbaok amaiera eman zion eta Juan Ignacio Pérez Iglesias eta Mikel Jauregi Eusko Jaurlaritzako sailburuek parte hartu zuten.

Azaroaren **4**an, Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaon:

- **275** erakundetako **647** kidek eman dute izena.
- **405** bertaratu.
- **2.011** interakzio sare sozialetan.
- **72** inpaktu komunikabideetan.
- **870** bistaratze laburpen-bideoan.

2024an egindako beste jarduera batzuk

- Lehendakaritzari laguntzea Ekimen Eragileetan, honako arlo hauetan: Zahartze osasuntsua, Mugikortasun elektrikoa eta Ekonomia zirkularra.
- ZTBESen pertzepzioari buruzko txostena berrikustea, oinarrizko inkesta, inkesta prozesua eta adituen panela birdiseinatzea barne.

- Adierazleen web-orrian datuak hobetzea eta eguneratzea, Innobasqueren korporazio irudiarekin bat.
- RIS3 6 jardunaldi egitea. **2023-2024** aldiko edizioa baloratzea: **838** bertaratu, **618** erakunde, horietatik 449 enpresak (% **73**).
- Etorkizunari buruzko **2025**eko batzarra: BECarekin batera aukera desberdinak aztertu dira, nazioarteko batzarrak Bilbora erakartzeko edo batzar propio bat sortzeko, eta azkenean, Future Days batzarra ondo ezagutzea erabaki dugu. Batzarra **2024**an Lisboan egin zen, eta **2026**ko edizioa Bilbon egitea negoziatzen saiatuko gara. Hortaz, **2025**ean etorkizunari buruzko batzarra egiteko aukera bertan behera utzi dugu.
- Gonbidatu gisa Dubai Futures Forum ekitaldiaren **2024**ko ediziora bertaratzea (azaroak **19-20**).
- Alemaniako SPRIN-D enpresarekin bilera birtuala egitea, berrikuntza disruptiboa sustatzeko bere estrategia ezagutzeko.
- Aurreratze-gobernantza proposamen bat prestatzea.

V. Helburu estrategikoa

Gure erakunde
kideekin batera
beharrizanak
identifikatzea eta
esperimentazio-
laborategi bat izatea

07

07

V. Helburu estrategikoa

Gure erakunde kideekin batera beharrianak identifikatzea eta esperimentazio-laborategi bat izatea

2021-2024 aldian, asko aurreratu dugu erakunde kideek Innobasqueren jardueretan duten inplikazioan, eta % **100** inguruko betetze-mailara iritsi gara. Hortaz, **864** erakunde kideekin harremanetan jarri gara, bisitatu ditugu edo Innobasquek antolatutako jarduera desberdinetan parte hartu dute, hala nola proiektuak eta lantaldeak, prestakuntza- eta gaikuntza-saioak, gosariak kide berriekin, berrikuntza-profilak prestatzea, bisitak eta abar.

2024 urtean zehar, Innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentziak **501 erakunde kide** (kideen % **55**) artatu eta/edo horiekin lankidetzan aritu da. Garatu ditugun jarduera hauek nabarmendu nahi ditugu:

- **211 erakundek parte hartu dute proiektu eta lantaldeetan;** horien artean “I+G arloko enpresa eragileen taldea” aipatu behar dugu. Taldea I+G jarduera horretako inbertsio-maila altuena duten enpresa-taldeetako ordezkariak osatzen dute. Euskadiko I+G arloko inbertsioaren % **20** baino gehiago eratzen dute, eta enpresek egindakoaren % **40** inguru.
- **272 erakunde bertaratu dira prestakuntza-ikastaroetara;** horien artean honako hauek nabarmentzen dira, erakunde kideei berariaz zuzenduak:

— 6 ikastaro etorkizuneko joerei buruz:

- Adimen Artifizial Sortzailea.
- Hezkuntzarako Adimen Artifizial Sortzailea.
- Erosketa Publiko Berritzailea.
- Sandbox, esperimentaziorako espazio kontrolatua berrikuntza eta erregulazioa lerrokatzeko.
- Teknologia kuantikoak: gure industriarentzako benetako aukerak.
- Adimen Artifizial Sortzailerako Tailerra.

— 9 ikastaro berrikuntzaren kudeaketari buruz:

- Berrikuntzaren ABCa.
- Gure ingurumena zaintzea berritzeko eta etorkizunari aurrea hartzeko.
- Nola egin roadmapping teknologikoa.
- Nola planifikatu eta antolatzen dut I+G saila nire enpresan.
- Aktibo ukiezinen ustiapena: zer dira eta nola kudeatu horien balorazioa.
- Nola aurreratu etorkizunari – Berritzeko joerak.
- Berritu lehiatzeko: I+G ustiatzeko estrategiak eta tresnak.
- Nola aurreratu etorkizunari – Egoerak zer diren eta nola eraikitzen diren.
- Berrikuntza irekia eta berrikuntza-ekosistemak.

— **3 ikastaro I+G arlorako eta berrikuntzarako laguntzei buruz:**

- I+Grako pizgarri fiskalen eta berrikuntza teknologikoen berritasunei buruzko ikastaroa.
- Enpresentzako hazkunde tresna gisa finantzaketa alternatiboari buruzko ikastaro praktikoa.
- I+Grako pizgarri fiskalen eta berrikuntza teknologikoen berritasunei buruzko ikastaroa.
- **Berrikuntza-kasu praktikoen 5 web-mintegi egin dira** erakunde kideentzako, eta honako hauen laguntza jaso dute: BCAM bikaintasuneko ikerketa-zentroa, Indumetal, Multiverse Computing eta Sariki enpresak eta Vicomtech zentro teknologikoa.
- **42 buletin esklusibo** bidali zaizkie erakunde kideei.
- **4 kidek parte hartu dute Liderrak eta berrikuntza atalean;** hausnarketarako gunek partekatu bat da, iritzi-tribuna formakoa: Juan de Miguel, Gestionet taldeko CEOa; Juan de los Ángeles, C4E Consulting Services-eko CEOa; Alex Rayón, Brain and Code-ko CEO eta Co-founderra eta Javier Ondarra, IS2COACH-eko zuzendari kidea.
- Erakunde kide berriei **ongietorria egiteko gosaria antolatu dugu:** Afesa, Agaleus, Aspegi, Beka Subvenciones, Bikain Innovation Consulting, Bilakatu, Brain and Code, Certinalia, Cesar Viniegra Enpresa-aholkularitza, Cibersare, Eoh-for-good, Gomez-acebo & Pombo Abogados, HSI Technologies Euskadi, Leyton eta Zunibal.

Lantaldea kideen artean networking proiektu pilotu berriak egiteko

2023an egindako erakunde kideen asebetetze-inkestan hori izan zen, hain zuzen ere, gure zerbitzuen artean gehien eskatu zutena, Innobasque berrikuntzaren arloan networking eta lankidetzaren polo bihurtu zedin. Helburu hori lortzeko, **2024**an barne-talde bat sortu zen, eskari horri erantzuteko proposamen bat garatzeko.

Branstorming-a egin ondoren, proiektu berriak abiarazteko **13** ideia plazaratu ziren, eta lehentasunak zehaztu ondoren, bi hauek ezarri ziren: **1)** Networking eremuak sortzea Innobasqueren prestakuntza-ikastaroetan, balidazio esperimentala egin ostean erakunde kideentzako ikastaroetara eskalatu ahal izateko; eta, **2)** aurrez hautatutako eta interes komunak dituzten kideekin bilera tematikoak egiteko. Bilera horiek diseinatzeko kontuan hartuko lirateke jorratu beharreko kolektiboak, landu beharreko gaiak eta networking-uneak.

Kideen biltzarra (Maiatzaren 29an)

Euskadiko Parke Teknologikoaren Donostia Campuseko Eraikin Nagusiko Auditoriumean.

- Bertaratuak: **226** pertsona.
- Legezko ordezkarien bidez ordezkaturako erakundeak: **118**.

Lege-gaiez gain (aztertzea eta onestea urteko kontuak, **2023**ko ekitaldiko kudeaketa-txostena, **2024**ko aurrekontua eta **2024** erakunde kideen kuotei buruzko informazioa), Zuzendaritza Batzordea eta Batzorde Betearazlea berritu ziren, Innobasqueko estatutuetan ezarrita dagoen **4** urteko agintaldia bukatu baitzen.

Ekitaldi berean Prisa Mediaren “Retina”-ko zuzendari Jaime García Canteroren hitzaldi bat izan genuen eta I+G arloko enpresa eragile kideen foro bat “euskal ekonomiaren sektore nagusietan I+Garen oraina eta etorkizuna”ri buruz hitz egiteko; azken hori Leire Bilbaok moderatu zuen. Honako enpresa hauek hartu zuten parte: Faes Farma, Iberdrola, Sener, Gestamp, Grupo Ulma, ITP Aero, Sidenor eta Danobat Group. Azkenik, eta Manuel Salaverriak parte hartu ostean, Biltzarra Iñigo Urkulluk itxi zuen.

VI. Helburu estrategikoa

Barne-taldearen
gaitasunak indartzea
eta erakundean
berrikuntza-sistematika
hobetzea

08

08

VI. Helburu estrategikoa

Barne-taldearen gaitasunak indartzea eta erakundearen berrikuntza-sistematika hobetzea

2024ekitaldian gutxienez taldearen dedikazioaren % **4,98** prestakuntza-jardueretara bideratu da, eta diru-sarreraren % **7,6** Innobasqueren berrikuntza kudeatzeko jardueretan inbertitu da.

Urtean zehar batez ere honako jarduketak hauek egin ditugu: barne-taldea prestatzea; AArekin aurrera jarraitzea; zibersegurtasun-politikak hobetzea eta taldea kontzientziaztea; CRM Dynamics **365** tresnaren erabilera optimizatzea; prozesuak digitalizatzea; tresnak eta plataformak hobetzea; datuak kontsolidatzea; eta aginte-taldeak hobetzea.

2024an egindako jarduketak nagusiak:

Prestakuntza

Taldea prestatzeko plan bat egin dugu, eta honako ildo hauetan jarri dugu fokua:

- Adimen artifiziala: Chat GPT4-aren hastapenak, prompting ikastaroak: hastapenak, erabilera eta teknika aurreratutakoak, datuen analisia AArekin bitartez, Custom GPTs tailerrak.
- Digitalizazioa: Power BI ikastaro aurreratuak, Dynamics 365: Marketin eta Zibersegurtasun modulua.
- Berrikuntza: Jardunaldia Xavier Marcet-ekin, Innobasquek ETEentzat antolatutako prestakuntza-ikastaroak, Europako programen autoprestakuntza.
- Lidergoa eta kudeaketa: CEGOS bidezko argudiaketa-ikastaroa, EDGERS lidergo programa.
- Espezializatuak: Bidaia-gastuen fiskalitatea, AA: Europako lege-esparrua, SIMO: hezkuntza-berrikuntzaren biltzarra, ZTBESaren eragileentzako kudeaketa-programa, ESADERen eskutik.
- Osasuna eta ongizatea: Loaren higieneari buruzko eta denbora kudeatzeko tailerrak.
- Hizkuntzak: euskara eta ingelesa.

Inbertsioa berrikuntzan

- **Zibersegurtasuna:**
 - Barne-taldea segurtasun digitalaren inguruan kontzientziaztea
 - Segurtasun-eskema nazionalarekin (ENS) lotutako hutsuneak aztertzea.
 - Proiektuak: Sistemen monitorizazio integrala, erabiltzaile-postuentzako antimalware-a eta identifikatutako beste segurtasun-arazo batzuk ebazteko plana.

- **Digitalizazioa:**

- Innobasqueren plataformen digitalizazioa: ZT eta IKZak ebaluatzeko tresna; CRM – Profilak – Berrikuntzaren Mapa plataformetako datuak finkatzea; STEAM profesionalen web-orri berria; dedikazio eta bidaia-gastuen tresnak hobetzea; Powerbi-n prestakuntzarako eta marketin digitalerako aginte-taldeak.
- Komunikazio, datu eta ahotsaren sistema integral berria, telefonogune birtualarekin.
- Gailuen kudeaketa zentralizatua (intunes).

- **Berrikuntza:**

- Barne-ikuskaritzarako sistema.
- AA sortzailearen aukerak aztertzea:
 - Microsoft Copilot eta ChatGPT4ko lizentziak probatzen.
 - AAren aukerak identifikatzeko saioa aditu baten laguntzaz.
- Pilotua garatzea Eustatekin euskal enpresa berritzaileen profila aztertzeko.

Zaintza lehiakorra

- Innobasqueko Buletina: barneko eta eguneroko zaintza-buletinak egin eta bidaltzea, Innobasqueko langileen intereseko gaien arabera.
- **2024**an guztira **142** buletin argitaratu ziren, eta **487** erreferentzia jaso zituzten.
- Innobasqueko zaintza-lanak egiteko tresna berri bat aztertzea **2025**etik aurrera.

Korporatiboa

09

09

Korporatiboa

Akordioak eta aliantzak eragile estrategikoekin

- Lankidetzarako esparru-hitzarmena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren (Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Teknologia, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitaleko Sailburuordetzaren bidez) eta Innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentziaren artekoa. Helburua honako hau da:
 - I+G+b nazioartekotzea.
 - Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileen aurrerapena eta finkatzea.
 - Berrikuntza sustatzea.
- Lankidetzak-hitzarmena Arabako Foru Aldundiarekin (**2024/02/16**).
- Lankidetzak-hitzarmena SPRIrekin Hazinnova **2024** programa kudeatzeko.
- GTIZren PIDI sarera sartzea.
- Akordioa UPV/EHUren Doktorego eskolarekin doktoregaien artean berrikuntzaren arloko prestakuntza sustatzeko.

• Nazioarteko eta estatuko bisita nabarmenak

- Costa Ricako Hezitzaileen Elkarte Nazionalaren (ANDERen kutxa) aurrezki- eta mailegu kutxaren bisita (**03/07/2024**).

Komunikazio korporatiboa

- Innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentziaren web-orri berria kaleratzea **2024**ko urtarilean.
 - **49** prentsa-ohar hedatzea, lineako prentsa-aretoan.
 - **197** web-berri zabaltzea.
- Ekitaldietan parte hartzea:
 - Presidentetza:
 - **2024/11/21**: Deia Vodafone Innovation Sariak ekitaldian parte hartzea.
 - **2024/12/18**: Emakume Teknologoarentzako Ada Byron sarietako epaimahaian eta sariak banatzeko ekitaldian parte hartzea.
 - **2024/12/18**: Enpresa Estrategiak Innobasquerekin lankidetzan egindako Berrikuntzaren Gida aurkezteko ekitaldian parte hartzea.
 - Zuzendaritza Nagusia:
 - **2024/03/14**: Energia Elektrikoko Enpresen Elkarte (AELEC) elkarteak "Sareak ehunduz lurraldetik: Euskadi, eraldaketa, lidergo industrial" ekitaldian parte hartzea.
 - **2024/03/15**: Gorkizko Ospitalearen Berrikuntza-jardunaldian parte hartzea.

- **2024/04/16:** Sormenaren Mundu Foroaren (CWF24) lan-saioetako bati hasiera ematea.
- **2024/04/21:** ADI Nouvelle-Aquitaine Akitania Berriko eskualdeko berrikuntza-agentziaren Batzar Nagusian parte hartzea.
- **2024/04/22:** Arizmendarrieta Sariak Bizkaia 2023 sariak banatzeko ekitaldian parte hartzea.
- **2024/09/24:** Esgatek eta Tarazagak antolatutako AA International Basque Forumean parte hartzea.
- **2024/09/26:** Deustuko Unibertsitateko Berrikuntza eta Teknologiako Etengabeko Prestakuntzako Masterrean parte hartzea.



innobasque.eus